

LGTBIQ+

2024ko ekainak 28 - HARROTASUNAREN EGUNA

Ekainaren 28an, LGTBIQ+ harrotasunaren egunean, harro gaudela aldarrikatu nahi dugu. Harro gure bizitzez, gure genealogiaz eta LGTBIQ+ mugimenduz.

Komunikabide ezagunen manipulazioek, eskuin muturreko diskurtso intoleranteek eta gorroto jarrerak dibertsitate sexual ezberdinak ezabatu nahi dituzten garai hauetan, garrantzitsua da nondik gatozen gogoraraztea, ospatzea eta ozen aldarrikatzea.

Stonewalletik Atauna, milaka galera, bizipen eta lorpen izan ditugun arren, egiteko asko geratzen da oraindik ere. LGTBIQ+ pertsonen egindako hainbat eraso salaketaren datuek izugarri egin dute gora azken urteetan. Ikusezin bihurtzeak eta bazterketak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan.

Honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Politika publiko eta integralak behar dira, ikuspegi feministan oinarritutako zerbitzuak eta babes kolektibo eta autodefentsarako mekanismoak.

Horregatik, Ataungo Udala osatzen dugun bi taldeek eta Biboletak Ataungo Talde Feministak konpromisoa hartzen dugu herriko LGTBIQ+ pertsonen eskubideak bermatzeko eta gorrotoa erakusten duen edozein jarrera salatzeke.

Bide batez, LGTBIQ+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean integratzeko lanean ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, HARRO egoteko moduko mugimendua osatzen dutelako.

Azkenik, dei egiten dizuegu Ekainaren 28aren inguruan antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzeko eta denon indarrak batzeko.

Gora Ekainaren 28a!

